Bergarako Udala

HONAKO HORNIDURA KONTRATATZEKO PROZEDURA IREKIA ARAUTZEKO BALDINTZEN PLEGUA: EGUBERRIETAKO ARGIAK ETA APAINGARRIAK ALOKATU, MUNTATU, DESMUNTATU ETA MANTENTZEA

I- KONTRATUAREN EDUKIA

1.- XEDEA

Kontratu honen xedea da Eguberrietako argiak eta apaingarriak alokatu, muntatu, desmuntatu eta mantentzea, Baldintza Agiri Teknikoetan jasotako baldintzetan. Arrazoizko txostenean jasota eta arrazoituta dagoen bezalaxe, kontratuak sorta bakarra dauka.

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen (SPKL) 62. artikuluan aurreikusitakoaren eraginetarako, **Kontratuaren Arduraduna** Udaleko Kultura Zerbitzuko arduraduna da.

CPV: 34991000-0 Kanpoko argiztapenerako argiak

Espediente zenbakia: 2026KOHS0005

2.- ENTREGA EPEA ETA KONTRATUAREN IRAUPENA

Kontratu honen iraupena **bi (2) urtekoa** da, kontratua sinatu eta hurrengo egun baliodunetik zenbatzen hasita.

3.- KONTRATUAREN PREZIOA

Kontratuaren prezioa (bi urtetarako dena) 42.148,76 eurokoa da, BEZ gabe.

Prezioaren barne daude, adibide gisa soilik, hornidurarako eta hala badagokio, instalaziorako beharrezkoak diren gastu guztiak: garraioa, enbalajea, muntaketa gastuak, homologazio teknikoari eta instalazio-prozesuan eragiten duten beste zeregin guztiei dagozkion kostu guztiak, bai eta dokumentazio-, homologazio-, legeztatze- eta baimentze-izapideen ondoriozko gastu guztiak ere; horiez gain, prezioaren barruan sartuko dira baimenak lortzearekin lotutako zergak eta kostuak, eta edozein fiskalitate-arlotako zerga guztiak. Hau da, udalak plegu honetan berariaz bere gain hartu ez dituen gastu guztiak.

Lizitatzaileek **prezioa hobetu ahal izango dute**. Ezingo da, inolaz ere, prezio altuagorik eskaini. Adjudikazio-hartzailea BEZa ordaintzetik salbuetsita egongo balitz, behar bezala justifikatu beharko du eta kopuru hori ez da eskaintzan sartuko. Adjudikazio-hartzaileak eskainitako prezioa ordainduko da.

ESKU351872e0-31d1-4fc5-a010-77f5a2848de0

Bergarako Udala

4.- KONTRATUAREN BALIO ESTIMATUA ETA LIZITAZIOAREN AURREKONTU OINARRIA

Kontratuaren balio estimatua: **50.578,51** eurokoa da (BEZ kanpo).

- 1.gabonaldia: 21.074,38 euro.
- 2.gabonaldia: 21.074,38 euro.
- Kontratuaren aldaketa (%20): 8.429,75 euro.
- Guztira: 50.578,51 euro.

Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua: 51.000 (BEZ barne)

Lizitazio tipoa guztira: 42.148,76 €

BEZ (%21): 8.851,24 €

GUZTIRA: 51.000 €

Kontratuaren xedea eratzen duen horniduraren prezioa zuzeneko kostuz bakarrik eratuta dago. Ondorioz, ez dagokio Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 100.2 artikuluan xedatutako aurrekontuaren banaketa egitea.

5.- FINANTZAKETA

Aurrekontu-gaietan eskumena duen organoak diru nahikoa dagoela egiaztatu du honako **aurrekontu partidan**: 1 3310.226.334.20.06 2026.

Aurrekontu-gaietan eskumena duen organoak diru nahikoa egongo delako konpromisoa hartu du kontratu honen eragina izan dezaketen hurrengo ekitaldi ekonomikoetako aurrekontuetan kontratua finantzatzeko behar adina kreditu erreserbatzeko.

6. - ORDAINTZEKO ERA

Guztizko prezioaren erdia ordainduko da gabonaldi bakoitzean. Urteko prezio horren ordainketa bi alditan egingo da:

- Horniketa eta instalazio-lanak amaitu ondoren, eta behin kontratuaren arduradunak horniduraren hartze-agiria izenpetu ostean, enpresa adjudikazio-hartzaileak dagokion **faktura elektronikoa** aurkeztu beharko du urteko prezioaren %50agatik.
- Behin instalazioa desmuntatuta, enpresa adjudikazio-hartzaileak bigarren faktura elektronikoa aurkeztu beharko du urteko prezioaren %50agatik.

ESKU351872e0-31d1-4fc5-a010-77f5a2848de0

Faktura onartu eta gero, indarrean dagoen araudiak zehaztutako epean eta eran egingo da ordainketa.

Udalbatzaren akordioaren bidez onartu ziren Bergarako Udalari faktura elektronikoak bidaltzeko baldintzak. Bertan erabakitakoaren arabera, faktura elektroniko hauek "Facturae" formatuan eman beharko dira (Horri dagokionez, "Facturae" formatuak une bakoitzean erabilgarri dituen bertsioei buruzko informazioa Udalgida web-orrian kontsultatu ahal izango da (www.gipuzkoa.eus helbidean).

Unitate organikoen **DIR3 Kodeak** honakoak dira:

Bergarako Udala

Organo kudeatzailea: EL01200744

Unitate izapidetzailea: EL01200744

Kontabilitate bulegoa: EL01200744

7. PREZIOAK BERRIKUSTEA

Ez da preziorik berrikusiko.

8.- BERMEAK

Ez dagokio behin-behineko bermerik eratzea.

Kontratazio-organoak, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 145. artikuluak xedaturikoarekin bat, eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileari errekerimendua luzatuko dio, eskainitako **azken prezioaren %5eko behin betiko bermea – BEZa kanpo -** eratzeko gehienez ere 10 egun balioduneko epean, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.Udalak ofizioz egiaztatuko du eratu izana.

Bermeak Udal-diruzaintzan jarri beharko dira eta Sektore Publikoko Kontratuen azaroren 8ko 9/2017 Legearen 108. artikuluak xedaturiko eran. Bermea eskudirutan gordailutzea erabakitzen bada, bermearen zenbatekoa honako kontu korronte honetan sartuko da: Kutxabank ES94 2095 5070 79 1061075569. Kontzeptuan espedientearen zenbakia eta kontratuaren xedea aipatu beharko dira.

Kontratua **aldatzearen** ondorioz, haren balioak aldaketak izaten baditu, **bermea berriz egokitu** egingo da. Hori egiteko hamabost eguneko epea egongo da, kontratua aldatzeko ebazpenaren jakinarazpena esleipendunari egiten zaion egunetik zenbatzen hasita. Hori guztia Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 109.3 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz egingo da.

Behin betiko bermea azken **gabonaldiko instalazioa desmuntatzen denetik lau hilabetera itzuliko da**, osorik edo –bidezkoa bada– zati batean, baldin eta adjudikazio-hartzaileak kontratuko betebehar guztiak beteta baditu. Bermeari dagokionean

ESKU351872e0-31d1-4fc5-a010-77f5a2848de0

eskaintzarik egiten ez bada, Baldintza Agiri Teknikoetan jasotako gutxieneko berme epea hartuko da kontuan. Itzulketa hori Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 111. artikuluan ezarritakoari jarraituz egingo da.

II. KONTRATATZEKO PROZEDURA

9.- ADJUDIKATZEKO PROZEDURA ETA MODUA

Kontratu honen adjudikazioa prozedura irekiaren bidez egingo da.

Administrazioak ahalmen osoa izango du kontratua bere iritzian abantailarik onenak eskaintzen dituen proposamenari adjudikatzeko, eta horretarako, eskaintza ekonomikoak ez du zertan erabakigarria izan. Era berean, lizitazioa hutsik utzi ahal izango du.

Aurkeztutako eskaintzak baloratzeko orduan, irizpide hauek hartuko dira kontuan:

1.- Memoria teknikoa (49 puntu arte)

2.- Proposamen ekonomikoa (45 puntu arte)

3.- Gorabeherak konpontzeko epeak (6 puntu arte)

Balio-judizio baten menpe dauden balorazio-irizpideak (B fitxategi elektronikoan)

1.- Memoria teknikoa: 49 puntu arte.

Balio judizio baten menpe dagoen balorazio irizpide gisa, lizitatzaileak memoria teknikoa aurkeztu beharko du. Memoria tekniko horrek jarraian zehaztutako bi atalak izango ditu:

- Proiektua (40 puntu arte): Argien argazkiak, planoak (neurriak barne) eta deskribapenak jaso beharko ditu atal honek. Baloratuko dira motibo apaingarrien ezaugarriak, argiztatuko diren espazioak, egokitasuna tokiko ohiturekin, ikusgarritasuna, originaltasuna eta aniztasuna.

- Instalazioa, muntaketa eta desmuntaketa prozedura (9 puntu arte): argiak instalatzeko, muntatzeko eta desmuntatzeko jarraituko den prozedura jasoko da. Bertan, muntaketan eta desmuntaketan erabiliko diren baliabide teknikoak zein pertsonalak jasoko dira. Halaber, kronograma bat aurkeztuko da, baldintza agiri teknikoetan jasotakoa errespetatuko duena. Prozeduraren egokitasuna, eraginkortasuna eta inguruan sor daitezkeen kalteak murrizteko gaitasuna baloratuko da.

Aipatu irizpideen (B fitxategi elektronikoa) **puntuazio OSOAREN % 50 lortzen ez duten proposamenak kanpoan geldituko dira,** eta, horren ondorioz, ez zaie beren C fitxategi elektronikoa irekiko. Halaber, **ez da fitxategi honetan C fitxategi elektronikoan txertatu**

ESKU351872e0-31d1-4fc5-a010-77f5a2848de0

beharreko informaziorik txertatuko. Hala gertatuko balitz, lizitatzailea lizitaziotik kanpo utziko da.

Formulen aplikazio bidez automatikoki baloratu daitezkeen irizpideak (C fitxategi elektronikoan)

2.- Eskaintza ekonomikoa: 45 puntu arte.

Eskaintza ekonomikoan bi urteko prezioaren eskaintza egingo da. Gehieneko prezio honakoa da: 42.148,76 euro (BEZ kanpo)

45 puntu emango zaizkio urteko prezio merkeena eskaintzen duen proposamenari eta gainontzeko proposamenen puntuazioa formula honetatik aterako da: prezio merkeena duen eskaintzaren eta baloratzen den lizitatzailearen eskaintzaren arteko zatiketa egin, eta emaitza hori biderkatu irizpideari aplikatu dakizkiokeen puntuen kopuru osoaz. Hau da:

LP = ET/LE x 45

LP: lizitatzailearen puntuazioa

ET: eskaintzarik txikiena

LE: lizitatzailearen eskaintza

3.- Gorabeherak konpontzeko epearen hobekuntza: **6 puntu arte.**

Eskaintza ekonomikoarekin batera, IV.eranskinean, gorabeheren aurrean erantzuteko epea hobetzeko konpromisoa jasoko da. Modu honetan baloratuko da:

- Gorabeherak 4 ordu baino gutxiagoan konpontzea: 6 puntu.
- Gorabeherak 4-8 orduko tartean konpontzea: 3 puntu.
- Gorabeherak 8-12 orduko tartean konpontzea: 2 puntu.
- Gorabehera 12-20 orduko tartean konpontzea: puntu 1.

10. PROPOSAMENAK AURKEZTEA

Gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasuna duten pertsona fisiko zein juridikoek parte hartu ahal izango dute kontratazio-jardunbide honetan, baldin eta kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionala egiaztatzen badute, eta Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen 71. artikuluan zehazten diren kontratatzeko debekuren bat ez badute.

Halaber, nork bere kabuz edo baimendutako ordezkariaren bitartez jardun ahal izango dute. Ordezkarien kasuan berariaz emandako ahalorde askietsia erabili beharko dute. Pertsona juridiko baten izenean horko kide bat datorrenean, agiri bidez justifikatu beharko du ahalmena duela horretarako. Bi kasuetan ere, kontratatzeko gaitasunik eza dakarten arrazoiak, gorago aipatutakoak, ordezkariari ere aplikatu behar zaizkio.

ESKU351872e0-31d1-4fc5-a010-77f5a2848de0

Gainera, lizitatzaileek helburu izan behar dute kontratu honen helburuarekin zuzeneko lotura duten ekintzak egitea, eta kontratua behar bezala betetzeko nahiko elementu pertsonal eta material daukan antolaketa talde bat eduki behar dute.

Proposamenen aurkezpena bitarteko **elektronikoak** erabilita soilik egingo da, Kontratugilearen profilean argitaratutako lizitazio-iragarkian adierazitako epearen barruan - **HAMABOST (15) EGUN NATURALEKO** epean, lizitazio iragarkia Kontratugilearen profilean argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, azken egunean soilik aukera izanda **13:00ak** arte aurkezteko. Epe-bukaerako eguna larunbat, igande edo jaiegun suertatuz gero, hurrengo laneguneko 13:00ak arte luzatuta gelditzen da.

Proposamenak elektronikoki aurkezteko informazio eta zehaztasun teknikoak, baita dataren zifratze eta balidatzea ere, Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataformaren barruan sartuta daude (www.contratación.euskadi.eus)

Zerbitzu horiek erabiltzeak ondokoa esan nahi du:

1.- Lizitatzaileak modu telematikoan prestatu eta aurkeztu behar dituela bere eskaintzak.

2.- Sistemak egingo duela eskaintzen zaintza elektronikoa.

3.- Plataformaren bitartez irekiko eta ebaluatuko dela dokumentazioa. Eskaintzak bitarteko elektronikoz bidaltzea bi fasetan egin ahalko da: lehenik, eskaintzaren aztarna elektronikoa igorriko da – hori jasotzearekin egintzat joko da aurkezpena ondorio guztietarako -, eta, ondoren, eskaintza bera 24 orduko epean, gehienez ere. Bigarren igorpen hori ez bada adierazitako epean egiten, eskaintza erretiratutzat joko da.

Eskaintzaren aztarna elektronikoa datu-multzo bat da zeinak eskaintzaren edukiarekin argi eta garbi lotzea bermatzen duen, eta eskaintzaren edukian egon daitezkeen aldaketak detektatzea ahalbidetzen, hala haren osotasuna bermatuz. Espedientean txertatu beharreko dokumentuen kopia elektronikoek bete egin beharko dute ondorio horretarako indarrean dagoen administrazio prozedura erkidearen alorreko legedia, bertan ezarritako guztiekin.

- Erabiltzaileen Laguntza Zentroaren telefono zenbakia: 945 016 298
- Interneteko helbidea: http://www.contratacion.euskadi.eus
- Posta elektronikoko helbidea: laguntzakpe@euskadi.eus

Ezkutukoak izango dira proposamenak, eta horiek aurkezteak esan nahi du baldintzarik gabe onartzen duela lizitatzaileak plegu honetan aurreikusitako guztia. Lizitatzaileek ezin izango dute aurkeztu aldagairik edo alternatibarik.

Hiru **fitxategi elektroniko** aurkeztuko ditu lizitatzaileak, bakoitzean dagokion dokumentazioa txertatuko delarik. Dokumentuek sinatuta egon beharko dute.

"A" Fitxategi elektronikoan, "KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA" izenburupean, ondorengo dokumentu hauek sartuko dira:

a. **Europako Kontratazio Dokumentu Bakarra** (DEUC). DEUCen formulario normalizatua helbide elektroniko honetan eskura daiteke: https://ec.europa.eu/growth/tools-databases/espd/filter?lang=es .

ESKU351872e0-31d1-4fc5-a010-77f5a2848de0

Halaber, udalaren Kontratatzailearen Profilean PDF formatuan eta XML formatuan eskura daiteke, lizitatzaileek DEUC betetzeko inportatu ahal izateko.

b. **Kaudimen teknikoa**:

   a) Irizpidea: Gehienez ere azken hiru (3) urteetan zehar kontratuaren xedea osatzen dutenen izaera bereko edo antzeko hornidura nagusien zerrenda; horien urteko zenbateko metatua kontratuaren urteko prezioaren bera edo handiagoa izango da.

   b) Egiaztatzeko bidea: Egindako horniduren zerrenda biltzen duen aitorpena aurkeztu beharko du, zenbatekoa, data eta hartzaile zehatza adieraziz. Era berean, lizitatzaileak adierazpen hori egiaztatu beharko du, gauzatze onaren ziurtagiriak aurkeztuta, hartzailea administrazio publikoa denean. Hartzailea subjektu pribatua bada, hark emandako ziurtagiri baten bidez egiaztatuko da, edo, ziurtagiri hori ez badago, enpresaburuaren adierazpen baten bidez, eta enpresaburuaren esku dauden eta prestazioa egin dela egiaztatzen duten dokumentuak erantsi.

   Kontratu honetan, kontratuaren xedea gabonetako argiak hornitzea da; beraz, justifikatu beharreko hornidurak ibilgailu horren izaera berekoak edo antzekoak izango dira.

c. **Aldi Baterako Enpresaburuen Elkarte bat eratzeko konpromisoa** (ABEE), hala dagokionean. Bi enpresa edo gehiago lizitazio batera joaten badira ABEE moduan eratzeko konpromisoarekin, deklarazio bat gehitu beharko da adieraziz hori izenpetzen duten enpresaburuen izenak eta inguruabarrak, bakoitzaren partaidetza zein den, eta, esleipendun ateraz gero, konpromisoa hartzen dutela formalki Aldi Baterako Elkarte bat eratzeko. Agiri hori elkartea osatzen duten enpresa guztien ordezkariek sinatu beharko dute. Horrelakoetan, enpresa bakoitzak bere DEUC aurkeztu beharko du.

d. **Atzerriko enpresen deklarazioa**. Atzerriko enpresek deklarazio bat aurkeztu beharko dute adieraziz Espainiako arlo guztietako epaitegi edo auzitegien menpe jarriko direla kontratuarekin zuzen edo zeharka zerikusia duten gorabehera guztietarako, eta, hala dagokionean, uko egiten diotela lizitatzaileari legokiokeen atzerriko jurisdikzio foruari.

e. **Posta elektronikoko helbide bat jakinarazpen elektronikoaren abisua** bidaltzeko, baita errekerimenduak edo eskaerak egiteko, datuak argitzeko, dokumentazio osagarria emateko edo akats konpongarriak daudela jakinarazteko ere (I.Eranskina)

f. **Desgaitasunaren kuotak eta berdintasun-plana** betetzeari buruzko zinpeko aitorpena. 50 langile edo gehiagoko enpresen kasuan, langileen % 2k desgaitasunen bat izan behar dute eta horren konpromisoa hartu beharko dute bere gain. 50 langile edo gehiagoko enpresek, aurrekoaz gain, berdintasun-plan bat izan beharko dute eta hori betetzeko konpromisoa hartu beharko dute bere gain (II. Eranskina).

g. **Lizitatzaileen dokumentu eta datu konfidentzialen aitorpena**. Enpresa lizitatzaileek adierazi egin beharko dute, hala badagokio, aurkeztutako dokumentu administratibo, tekniko eta datuetatik zeintzuk diren, beraien ustez,

ESKU351872e0-31d1-4fc5-a010-77f5a2848de0

konfidentzialtzat hartu beharrekoak. Gainera, gorabehera hau argi eta garbi islatu beharko da (gaininprimatuta, ertzean idatzita edo beste edozein eratan) halakotzat hartutako dokumentuan bertan. Enpresa lizitatzaileek aurkeztutako dokumentuak eta datuak konfidentzialtzat jo daitezke baldin eta hirugarren pertsona edo erakundeei ezagutaraztea haien interes komertzial legitimoen aurkakoa izan badaiteke edo enpresen arteko lehia leialari kalte egin badiezaioke. Horrelako adierazpenik aurkezten ez bada, ulertuko da ez dagoela izaera hori duten dokumentu edo daturik. (III. Eranskina)

Lizitatzaileak gehienez ere hiru egun balioduneko epean aurkeztu beharko du zuzenketa eraginetarako eskatu zaion dokumentazioa –errekerimendua jasotzen denetik kontatzen hasita–. Errekerimendua aipatutako epearen barruan betetzen ez bada, ulertuko da lizitatzaileak eskaintza erretiratu egin duela eta prozeduratik kanporatua izango da.

"B" Fitxategi elektronikoan, gutxienez 9. atalean (**BALIO-JUDIZIO BATEN MENPE DAUDEN BALORAZIO-IRIZPIDEAK)** zehaztutako atal guztiak garatu beharko dira.

Inoiz ez da sartuko fitxategi honetan proposamen ekonomikoa edo balorazio irizpide objektiboei dagokien informazioa. Sartuz gero, lizitatzailea prozedura honetatik kanpo geratuko da eta ez da irekiko bere "C" fitxategia.

"C" Fitxategi elektronikoan, **FORMULEN APLIKAZIO BIDEZ BALORATU BEHARREKO IRIZPIDEEI DAGOKION ESKAINTZA** sartuko da, IV.Eranskina erabilita.

Halaber, eskaintza ekonomikoa osatzen duten kontzeptu guztien **prezio unitarioak zehazten dituen agiria** aurkeztu beharko da.

Ez da sartuko fitxategi honetan "B" fitxategian sartu beharreko dokumentazioa. Horietako dokumentuetakoren bat "C" fitxategian sartuz gero ez da baloratuko.

11. KONTRATAZIO-MAHAIA

Kontratazio-mahaia honako hauek osatuko dute:

LEHENDAKARIA:

- Bergarako Udaleko alkate-lehendakaria, edo hark eskuordetuko duena.

MAHAIKIDEAK:

- Kontu-hartzailea, edo hark eskuordetuko duena.
- Udaleko idazkaria, edo hark eskuordetuko duena.
- Kultura zerbitzuko arduraduna, eta bere ordez, kultura teknikari laguntzailea.
- Zerbitzu Orokorretako eta Kontratazioko Teknikaria, Kontratazio Mahaiko Idazkari lanak egingo ditu.

Mahaiaren bileran parte hartu ahal izango dute, aholkularitza-eginkizunetarako, Mahaiak eskatutako udal teknikari arduradun guztiek. Mahaiak, halaber, bidezko iritzitako txosten tekniko guztiak ere eskatu ahal izango ditu.

ESKU351872e0-31d1-4fc5-a010-77f5a2848de0

Bergarako Udala

12. AGIRIAK SAILKATZEA ETA PROPOSAMENAK IREKITZEA

Proposamenak aurkezteko epea amaitutakoan honako jarduketa hauek egingo dira:

1. "A" FITXATEGI ELEKTRONIKOA IREKITZEA ETA BARRUAN DARAMAN DOKUMENTAZIOA KALIFIKATZEA

Eskaintzak aurkezteko epea amaitu eta gero, A fitxategi elektronikoa irekiko da, eta dokumentuak badaudela egiaztatuko da; bestela, konpontzeko izapidea egingo du Kontratazio Mahaiak. Mahaiak, aurkeztutako agiriak kalifikatu ondoren eta, hala badagokio, antzemandako akatsak edo ez-eginak zuzendutakoan, zehaztuko du zein diren aukeraketa irizpideei egokitzen zaizkien enpresak eta berariaz adieraziko du nortzuk onartu dituen lizitazioan, nortzuk geratu diren kanpoan eta zergatik geratu diren kanpoan.

2. "B" FITXATEGI ELEKTRONIKOA IREKITZEA

"B" fitxategi elektronikoa proposamenak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo osteguneko 10:15ean irekiko da, aldez aurretik kontratatzailearen profilean beste data bat zehaztu ezean.

Hasierako deialdi honen mantentzea edo, kasu, aldaketak argitara emango dira Kontratatzailearen Profilean (www.bergara.eus), baina jakinarazpenetarako egoki jotzen den beste edozein bide ere erabili ahal izango da.

Egintza horretan berariazko adierazpena egingo da mahaiak proposamenei emandako kalifikazioari buruz eta lizitaziora onartu direnak identifikatuko dira, baita baztertu direnak ere, eta kasu horretan baztertzeko arrazoiak azalduko dira.

3. "C" FITXATEGI ELEKTRONIKOA JENDAURREAN IREKITZEA

"B" fitxategi elektronikoa ireki eta barruko dokumentazioa baloratu ondoren "C" fitxategi elektronikoa irekiko da jendearen aurrean, Kontratatzailearen Profilean (www.bergara.eus) adierazitako egun eta orduan.

"C" fitxategi elektronikoa ireki baino lehen, eskaintza bakoitzean balio-irizpide baten menpe dauden irizpideei eman zaien balorazioa jakinaraziko da modu orokorrean. Xehetasun handiagoarekin jasoko da Kontratazio Mahaiko akta, Kontratatzailearen Profilean argitaratuko dena.

4. ESKAINTZAK SAILKATZEA

Behin irizpide guztiak baloratu ondoren, aurkeztutako proposamenak Mahaiak sailkatu egingo ditu (puntuazio handienekotik gutxienekora) eta kontratua adjudikatzeko proposamena bideratuko du, gehienez ere 2 hilabeteko epean.

5. LEHEN SAILKATUARI ERREKERIMENDUA EGITEA

ESKU351872e0-31d1-4fc5-a010-77f5a2848de0

Bergarako Udala

Lehenagoko ekintzak egin eta gero eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileari Alkatetzatik eskatuko zaio ondoren adierazten den dokumentazioa entregatu dezala hamar laneguneko epean, errekerimendua jaso duen egunaren biharamunetik hasita:

- **Kaudimen ekonomikoa**:

  a) Irizpidea: Negozioen urteko bolumenak, azken hiru urteetako ekitaldi hoberenari dagokiona, kontratuak hartzen duen eremuan, kontratuaren urteko prezioa gainditu beharko du.

  b) Egiaztatzeko bidea: Lizitatzailearen kaudimen ekonomikoa nahikoa dela egiaztatzeko, kasu bakoitzerako erregelamendu bidez zehazten diren ziurtagiriak eta dokumentuak aurkeztu beharko dira, honako hauen artean: banku-ziurtagiria, edo, urteko kontuak eta enpresaburuaren adierazpena, enpresaren negozio-bolumen osoa adierazita. Nolanahi ere, Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean inskribatuta egoteak enpresaburuaren kaudimen ekonomiko eta finantzarioaren baldintzak egiaztatuko ditu, erregistro horretan adierazitakoaren arabera eta kontrakorik frogatu ezean.

- **Lanbide-arriskuengatiko erantzukizun zibileko** asegurua duela egiaztatu beharko du eskaintza onuragarriena aurkeztu duen lizitatzaileak. Aseguruak gutxienez **300.000 euroko** estaldura izango du–. Egiaztagiri horrekin batera, kontratuaren iraupen osoan zehar asegurua mantentzeko konpromisoa ere aurkeztu beharko du.

- Lizitatzaileak kontratuaren zatiren bat hirugarrenei **azpikontratatzeko** asmoa badu, aurreikusitako azpikontratistak, emango duen zerbitzuaren azalpen laburra eta orotara lizitatzaileak eman beharreko zerbitzuari dagozkion ehunekoak zerrendatu beharko ditu.

- **Ekonomi Jardueren gaineko Zergan (EJZ)**, kontratu-xedeari dagokion epigrafean hain zuzen ere, alta emanda egotearen egiaztagiria, uneko ekitaldian bertan hartua badu, edo EJZren azken ordainagiria gainerako kasuetan; eta kasu bietan ere, zerga horren matrikulan baja eman ez izanari buruzko erantzukizun-adierazpena aurkeztuko du.

- Plegu honetako 8.atalean zehaztutako **behin betiko bermea** gordailupean uztea.

Halaber, informatzen da Udalak, 39/2015 Legeko 53.1d) artikuluari jarraiki, kasuan kasuko Administrazioaren eskutik, honako datu hauek eskuratuko dituela **ofizioz,** eta hala, eskaintza onuragarriena aurkeztu duen **lizitatzaileak ez dituela honako datu hauek egiaztatu beharko**:

- **Zerga betekizunetan zein Gizarte Segurantzarekikoetan egunean** egoterari buruzko ziurtagiriak. SPKLko 771.1d), 140.1 a) eta 150.2 artikuluek ezarritakoari jarraiki, honako Administrazio hauengandik eskuratuko dira datuak:

  - Gipuzkoako, Arabako eta Bizkaiko Foru Ogasuna.

  - Gizarte Segurantza.

**Hori horrela izanda, zergak aipatu Lurralde Historikoetan ordaintzen ez dituzten lizitatzaileek ziurtagiri positiboak aurkeztu beharko dituzte.

ESKU351872e0-31d1-4fc5-a010-77f5a2848de0

- Lizitatzailearen **gaitasun juridikoa** eta haren **ordezkarien datuak** (Euskal Autonomia Erkidegoko Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean). Eskaintza onuragarriena aurkeztu duen lizitatzailea erregistro horretan inskribaturik ez badago, enpresaren gaitasuna egiaztatzeko eratze edo aldaketa eskritura, hala dagokionean, Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribaturik dagoela ziurtatzeko egiaztagiria eta identifikazio fiskaleko zenbakia. Hala ez bada, eraketaren, estatutuen edo fundazio-egintzaren eskritura edo agiria aurkeztuko du, jarduteko gaitasuna duela frogatzeko. Agiri hori erregistro ofizial egokian inskribatuta egongo da, hala behar denean, eta bertan agertuko dira lizitatzailearen jarduera zuzentzen duten arauak. Lizitatzaileak bere izenean jardun badu, nortasun-agiri nazionala edo dagokion estatuko baliokidea aurkeztu beharko du.

- **Bergarako Udalarekiko betebeharretan** egunean egotea.

Adierazitako epe horretan errekerimendua zuzen bete ezean, lizitatzaileak eskaintza erretiratu egin duela ulertuko da eta hurrengo lizitatzaileari eskatuko zaio dokumentazio bera, betiere eskaintzen sailkapenaren hurrenkerari jarraituz.

13. ADJUDIKAZIOA ETA KONTRATUA

Adjudikazioa, gehienez ere, lizitatzaileak dokumentazioa aurkeztu eta hurrengo 5 egun baliodunetan gauzatuko da, betiere lizitatzaileak adierazitako dokumentazioa aurkeztu badu eta behin betiko bermea jarri badu.

Adjudikazioa gehienez ere 15 eguneko epean argitaratuko da –behin betiko adjudikazioa egin eta hurrengo egunetik kontatzen hasita–.

Eskaintza anormaltzat edo neurriz gainekotzat jotzen denean eskaintzaileari (edo eskaintzaileei, hala dagokionean) entzun egingo zaio eta dagokion zerbitzuak aholkularitza teknikoa egin beharko du.

Kasu horretan, lizitatzaileak emandako arrazoiak eta eskatutako txostenak aintzat hartuta, kontratazio-organoak proposamenik onuragarriena egiten duen lizitatzaileari egingo dio adjudikazioa, baldin eta Administrazioaren esanetan lanak egoki egiteko gaitasuna badu; bestela anormaltzat edo neurriz gainekotzat jotzen ez den proposamenaren alde egingo da adjudikazioa.

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 152. artikuluaren arabera, kontratua burutzeari edo jardunbide honi uko egiten bazaio, adjudikazioak lizitatzaileei eragindako gastuak konpentsatzeko Administrazioak zehaztuko ditu gastuok, lizitatzaileei entzunaldia eman eta gastuak justifikatu ondoren.

Kontratuaren formalizazioari dagokionean, Sektore Publikoko Kontratu Legearen 153.3 artikuluari jarraiki, kontratua administrazio-dokumentuan formalizatu beharko da, esleipenaren jakinarazpena lizitatzaileei igortzen zaienetik **5 egun** igaro baino lehen

Adjudikazio-hartzailearen erruagatik kontratua formalizatu gabe geratzen bada, udalak bertan behera utzi ahal izango du kontratua, interesduna entzun eta gero, eta honek kalte-ordainak ordaindu beharko ditu.

ESKU351872e0-31d1-4fc5-a010-77f5a2848de0

Bergarako Udala

III. KONTRATUA GAUZATZEA

14. KONTRATUA GAUZATZEA

Kontratua beteko da zurrun eta zorrotz jarraituta baldintza ekonomiko-administratiboen eta teknikoen pleguek diotenari, eta edozein kasutan ere, udal ordezkariek kontratistari agiri horiek diotena burutzeko edo interpretatzeko orduan idatziz emandako jarraibideei.

Kontratistak izango du egindako lanen eta emandako prestazio eta zerbitzuen kalitate teknikoaren erantzukizuna eta baita kontratua betetzerakoan egiten dituen hutsegite eta akatsek, erabiltzen dituen metodo ezegokiek edo ateratzen dituen konklusio okerrek Administrazioarentzat edo beste norbaitentzat izan ditzaketen ondorioen erantzukizuna ere. Kontratistak berari egotz dakizkiokeen ekintzengatik hirugarrenei egiten zaizkien kalteen kalte-ordainak ordainduko ditu.

Kontratistak bete egin beharko ditu kontratu honen xede diren zerbitzuak emateko une bakoitzean indarrean dauden arau guztiak.

Kontratu-hartzailea derrigortuta dago kontratua burutzeko epea betetzera; berandutzak ez du eskatzen udalak aurretik ohartarazi beharrik.

Kontratista, prestazioa emateko, derrigortuta dago kontratua zuzen betetzeko beharrezkoak diren bitarteko laguntzaile guztiak eta ekipoa jartzera, kontratuan bertan hitzartutako epeetan.

Kontratu hau burutuko duten langileei dagokienez, enpresa kontratistak bere gain hartzen du edozein enpresabururi dagokion zuzendaritza-botereaz baliatzeko obligazioa. Bereziki, ondoko betebehar hauek hartuko ditu bere gain: ordainsariak negoziatzea eta ordaintzea; baimenak, lizentziak eta opor-egunak ematea; lan-arriskuen prebentzio alorrean legez dauden betebeharrak betetzea; diziplina-zehapenak ezartzea –hala egitea dagokionean–; Gizarte Segurantzaren alorreko obligazioak betetzea –kotizazioen ordainketa eta prestazio-ordainketa barne–; eta baita enplegatuaren eta enplegatzailearen arteko lan-kontratutik sortzen diren gainontzeko eskubide eta obligazio guztiak ere.

Enpresa kontratistak, gutxienez, koordinatzaile tekniko bat edo arduradun bat izendatu beharko du, bere plantillan integratua, eta beste batzuen artean obligazio hauek izango ditu:

A.- Kontratuarekin zerikusia duten gauza guztietarako kontratistaren pertsonalak Administrazioarekin egin behar duen edozein komunikazio jaso eta emateko orduan, beti izango da koordinatzailearen, teknikariaren edo horretarako izendatu den solaskidearen bidez.

B.- Enpresaren lan-arauak betetzen direla kontrolatzea, batik bat pertsonala lanlekura joan behar denean edo oporrak hartzen dituenean; kontratatutako zerbitzuaren eskaintza ez nahasarazteko.

C.- Kontratua egitera atxiki diren enplegatuek kontratuari atxikita segitzen ez dutenean, Administrazioari horren berri eman behar zaio, bereziki haiek zeuzkaten lan-bitartekoak modu egokiagoan kudeatu ahal izateko.

Hitzartutakoa burutzeari dagokionez, kontratuak duen termino horietako edozein ez ezagutzeak, kontratuaren zati diren dokumentu erantsiak ez ezagutzeak edo

ESKU351872e0-31d1-4fc5-a010-77f5a2848de0

Administrazioak onartu dituen mota guztietako Baldintzak edo arauak, jarraibideak edo aginduak ez ezagutzeak, ez du salbuesten kontratista kontratua betetzeko duen bere obligazio horretatik.

Kontratu-hartzailearen arriskuz eta zoriz egingo da kontratua.

Kontratua udalaren zuzendaritzaren, ikuskapenaren eta kontrolaren pean burutuko da, eta honek idatziz nahiz ahoz erabili ahal izango ditu ahalmen horiek.

Bergarako Udalak zerbitzuaren zuzendaritza orokorrari dagokionean dituen eskumen orokorrez gain, kontratua behar bezala gauzatzeko jarraibide orokorrak zerbitzu horren ardura daraman teknikariaren bidez emango dira, besterik jakinarazten ez bada behintzat.

Kontratu-hartzaileari edo haren agindupekoei egotz dakiekeen egite edo ez-egiteren baten ondorioz Bergarako Udalak uste badu kontratua behar bezala burutzea kolokan dagoela, kontratua behar bezala burutu dadin beharrezkotzat jotzen dituen neurriak har daitezela agindu ahal izango du.

15. KONTRATISTAREN LANEKO BETEBEHARRAK

Enpresa kontratu-hartzaileak bete egin behar ditu lan arloan, Gizarte Segurantzaren arloan eta laneko segurtasun eta higienearen arloan indarrean dauden lege-xedapenak; eta aipatutakoak bete ezean, Bergarako Udala salbuetsita geldituko da horren inguruko edozein erantzukizunetatik. Era berean, behartuta dago, dagokion neurrian, honako hauek ere betetzera: azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretua (Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina onartu zuena); martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa (Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirakoa); azaroaren 8ko 31/1995 Legea (Lan Arriskuen Prebentzioari buruzkoa); Prebentzio Zerbitzuen Erregelamendua (urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuaren bidez onartutakoa) eta era berean, kontratua gauzatzen den bitartean promulgatuko daitezkeen araudiak aipatutakoen inguruan edo beste batzuk direla.

16. KONTRATUA GAUZATZEKO BALDINTZA BEREZIAK eta KONTRATUAREN FUNTSEZKO BETEBEHARRAK

Kontratistak zein azpikontratistek kontratua gauzatzeko baldintza berezi hauek bete beharko dituzte:

Sozialak: Kontratu honek bete egin beharko ditu indarrean dauden lege-, erregelamendu- eta hitzarmen-xedapen guztiak, lan-arlokoak, gizarte-segurantzakoak eta laneko segurtasun eta osasunari buruzkoak.

Kontratua gauzatu bitartean, kontratistak hitzarmen kolektibo aplikagarrian jasotzen den lansaria ordaindu beharko du gutxienez, langileari dagokion kategoria profesionalaren arabera, eta ordaindu beharreko lansaria inola ere ez da hura baino txikiagoa izango. Enpresaburuaren eta langileen artean akordioren bat balego, hura errespetatu beharko du enpresak.

ESKU351872e0-31d1-4fc5-a010-77f5a2848de0

Klausula horiek betetzea **kontratuaren funtsezko betebeharra** da; beraz, horiek ez betetzea kontratua suntsiarazteko arrazoia izango da. Halaber, funtsezko betebehar izaera du eskaintza tekniko zein ekonomikoan proposatutakoak betetzea.

17.- BAIMEN, LIZENTZIA ETA AUTORIZAZIOEN KUDEAKETARI BURUZKO BETEBEHARRAK

Kontratistak zerbitzua hasi eta gauzatzeko beharrezkoak diren eta ezein erakunde publiko zein pribaturen arauetan xedatuta dauden baimen, lizentzia eta autorizazioak kudeatzeko betebeharra izango balu Bergarako udalari horretarako behar dituen dokumentuak eskatuko dizkio.

18- SEGURTASUNA ETA OSASUNA

Kontratistak, kontratuaren xede diren zerbitzuak ematearen arloan, segurtasunaren eta osasunaren erantzulea den heinean, arau juridiko eta tekniko aplikagarriak beteko ditu.

Bergarako Udalak eskubidea izango du kontratua indarrean dagoen bitartean prebentzioaren arloan egokitzat jotzen duen dokumentazioa eskatzeko.

19. KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA, KONTRATUA BURUTZERAKOAN BESTE BATZUEI KALTEAK ERAGITEN BADIZKIE

Kontratistaren ardura izango da zerbitzua burutzearen ondorioz sor litezkeen kalteak eta galerak bere gain hartzea, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 196. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

20. KONTRATUA ALDATZEA

Honako egoera hauetan aurreikusten da kontratua aldatzeko aukera:

- Apainduko diren kale, plaza edo gune publikoen kopurua handitzea edo murriztea.
- Argizko motiboak, figurak, arkuak, girlandak, Gabonetako zuhaitzak edo kontratuaren xedean jasotako gainerako apaingarriak gehitzea, kentzea edo ordeztea.
- Aurreikusitako elementuen unitate-kopurua aldatzea, udalaren programazio-beharrak, jarduera berriak edo argiteria indartu edo murrizteko beharrak direla eta.

Kontratuaren aldaketaren balorazio ekonomikoa adjudikaziodunak bere eskaintza ekonomikoan aurkeztutako unitateko prezioak aplikatuz egingo da. Ondorioz, elementu bakoitzaren unitateko prezioa ezingo da aldatu kontratua gauzatzean.

ESKU351872e0-31d1-4fc5-a010-77f5a2848de0

Eskaintza ekonomikoan jasota ez dagoen elementuren bat hornitu edo instalatu behar izanez gero, haren prezioa kontratazio-organoak aldez aurretik onartutako prezio kontraesankorraren bidez zehaztuko da, Sektore Publikoko Kontratuen Legean ezarritako mugak eta baldintzak errespetatuz.

Aurreikusitako aldaketa guztien zenbateko metatua ezingo da izan kontratuaren hasierako prezioaren %20 baino handiagoa (BEZa kanpo), eta aldaketa horiek ezingo dute kontratuaren izaera orokorra aldatu.

Baldintza-orrietan aurreikusi ez diren aldaketak bakarrik egin ahal izango dira baldin eta behar bezala justifikatzen bada 205. artikuluan aipatutako inguruabarren bat gertatzen dela.

21. KONTRATUAREN LAGAPENA (ZESIOA)

Kontratu honetatik eratorritako eskubideak eta betebeharrak hirugarren bati laga ahal izango dizkio adjudikazio-hartzaileak baldin eta betetzen badira Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 214. artikuluan zehaztutako kasuak eta baldintzak.

22. DATU PERTSONALEN BABESA

Kontratua gauzatzeko arduradunen, ordezkarien edo harremanetarako pertsonen datu pertsonalak une bakoitzean indarrean dagoen datu pertsonalak babesteko araudiaren arabera tratatuko dira. Emandako datu pertsonalen tratamenduaren helburua hau da: kontratuak gauzatzeko udalak egiten dituen administrazio-kontratazioko deialdietara eskaintzak aurkezterakoan jasotako informazio pertsonala kudeatzea.

Datuen tratamendua honako hauek legitimatzen dute: Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 6.1.e) eta c) artikuluek, eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeak.

Datuen hartzaileak legez ezarritakoak eta tratamendu honen esparruan aplikatzekoak direnak dira.

Eragindako pertsonek beraien eskubideak baliatu ahal izango dituzte nork bere datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, mugatzeko edo haien aurka egiteko, bai eta datu-babesaren alorreko araudiaren arabera aplikagarri diren gainontzeko eskubideak baliatu ere, tratamenduaren arduradunaren aurrean: Bergarako Udala.

Kontratazio honen bitartez datu pertsonalak eskuratuko balira, kontratistak Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Hogeita Bosgarren Xedapen Gehigarritik datozen eginbeharrak bete beharko ditu: Datu Pertsonalen Babeserako abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoari eta horren garapen-araudiari buruz.

Kontratistak udalaren jarraibideen arabera tratatuko ditu kontratua dela-eta eskuratzen dituen datu pertsonal automatizatuak eta ez ditu aplikatuko, ez erabiliko bertan agertzen den xedea ez den beste baterako, eta ez dizkie beste pertsona batzuei jakinaraziko, ezta kontserbatzeko ere.

ESKU351872e0-31d1-4fc5-a010-77f5a2848de0

Kontratuaren prestazioa amaitu ondoren, tratatutako datu pertsonalak udalari eman beharko zaizkio, baita tratatzeko moduko datu pertsonalak dituen edozein euskarri edo dokumentu ere.

Enpresa adjudikazio-hartzaileak, kontratuaren baldintzak urratuz, beste xede baterako bideratu, jakinarazi edo erabiltzen baditu datuak, orduan tratamenduaren erantzuletzat ere hartuko da, eta egin izan ditzakeen arau-hausteez erantzungo du.

Kontratu honen bidez ezagutu ditzaketen datuei buruz enpresa kontratista eta bere langileak espresuki behartuta daude datu guztiak zeharo isilpean mantentzera (datu pertsonalak barne).

23. KONTRATISTAREN EZ-BETETZEAK, ETA EZ-BETETZEENGATIK KONTRATISTARI EZARRI BEHARREKO ZIGORRAK

Honako hauek ez-betetzeak dira:

Prestazioen burutzapen partziala dela-eta

Kontratua burutzeko **epeak ez betetzea**: Kontratistak, berari lepora dakizkiokeen arrazoiengatik, kontratua burutzeko epe osoa igarotakoan burutu gabe baditu egin beharreko lanak, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera utzi eta bermea bereganatzea, edo egun bakoitzeko penalizazioak ezartzea egunean 0,60 euroko proportzioan, kontratuaren prezioaren 1.000 euro bakoitzeko. Atzerapenagatiko zigorren guztizko zenbatekoak kontratuaren prezioaren ehuneko 5aren multiploren bat jotzen duen bakoitzean, kontratazio-organoak aukera izango du kontratua bertan behera uzteko edo zigor gehiago ezarri eta burutzapenean aurrera egin dadila erabakitzeko.

Halaber, **behin instalatuta sortutako gorabeherei** dagokienean, eskainitako epean (edo plegu teknikoetan zehaztutako 24 orduko epean) konponduko ez balira, 150 euroko zigorra izango du egun oso bakoitzeko. Zigor hauen guztizko zenbatekoak kontratuaren prezioaren ehuneko 5aren multiploren bat jotzen duen bakoitzean, kontratazio-organoak aukera izango du kontratua bertan behera uzteko edo zigor gehiago ezarri eta burutzapenean aurrera egin dadila erabakitzeko.

Erabakia berehala betearaztekoa izango da; eta diru-kopuru horiek kobratzeko, kontratistari egin behar zaizkion ordainketetatik –ordainketa osotik zein zatikakoetatik– dagozkion kenketak egingo zaizkio, eta aipatutako ziurtagiri horietatik ezin bazaio kenketarik egin, ezarrita duen bermetik kenduko zaio.

Nolanahi ere, penalizazioak ezarri aurretik entzunaldia emango zaio adjudikazio-hartzaileari.

24. KONTRATUA BERTAN BEHERA LAGATZEKO ARRAZOIAK

Kontratua bertan behera uzteko arrazoiak, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 211. eta 306. artikuluetan ezarritakoak dira, eta erabaki hori kontratazio-organoak hartuko du, ofizioz edo kontratistaren eskariz, kontratistari entzun egingo zaiola bermatuta eta 2017ko SPKLren 213. eta 307. artikuluetan xedaturiko baldintzetan eta hor aurreikusitako ondorioekin.

ESKU351872e0-31d1-4fc5-a010-77f5a2848de0

Kontratua, kontratistari egotz dakiokeen arrazoiren batengatik suntsituko balitz, hari, behin betiko bermea bahituko zaio; Administrazioari egindako kalte-galerak bahitu den bermearen kopuru horretatik gorakoak balira, hortik lekizkiokeen kalte-ordainen kalterik gabe.

25. ADMINISTRAZIOAREN PRERROGATIBAK

Administrazioari dagokio kontratua interpretatzea, kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, Sektore Publikoaren Kontratuen Legean eta Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

IV.- IZAERA, ARAUBIDE JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

26. IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA

Plegu honen arabera egingo den kontratuak izaera administratiboa izango du, eta bertan xedatzen ez den guztirako ondoko arauei jarraitu beharko zaie:

- Toki Jaurbideko Oinarrien 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, eta 781/1986 Errege Dekretu Legegilea, apirilaren 18koa, Toki Jaurbidearen alorrean indarrean dauden xedapenen Testu Bateratua onartzen duena.
- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legea onartzen duena; eta lege horrek xedatzen duenaren aurka ez doazenean:
- 817/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuen 30/2007 Legea zati batean garatzen duena.
- Administrazio Publikoaren Kontratuen Legeko Erregelamendu Orokorra, urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren bitartez onartua.
- Eta besterik ezean, zuzenbide administratiboko bestelako xedapenak, eta halakorik ezean, zuzenbide pribatukoak.

27. JURISDIKZIO ESKUDUNA

Kontratutik sortzen diren auziak Administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren menpe egongo dira.

28. KONTRAESANA DOKUMENTAZIOAREN ARTEAN

ESKU351872e0-31d1-4fc5-a010-77f5a2848de0

Kontratatzailearen profilean argitaratzen diren agiri teknikoen, arrazoizko txostenaren, administrazio-agirien edo gainerako agirien artean desadostasunik balego, Baldintza Administratibo Zehatzen Pleguko xedapenak gailenduko dira.

Bergaran, sinadura elektronikoaren datan.

Sin.:

Administrazio Orokorretako Teknikaria
Goretti Andrinua Iraolagoitia

ESKU351872e0-31d1-4fc5-a010-77f5a2848de0

Bergarako Udala

PLIEGO DE CLÁUSULAS REGULADORAS DEL PROCEDIMIENTO ABIERTO PARA LA CONTRATACIÓN DEL SIGUIENTE SUMINISTRO: ALQUILER, MONTAJE Y DESMONTAJE, ASÍ COMO EL MANTENIMIENTO DEL ALUMBRADO Y ORNAMENTACIÓN NAVIDEÑA.

I- CONTENIDO DEL CONTRATO

1.- OBJETO

El presente contrato tiene por objeto el Alquiler, montaje y desmontaje, así como el mantenimiento del alumbrado y ornamentación navideña, en los términos recogidos en los Pliegos Técnicos. Tal y como consta y se justifica en el informe razonado, el contrato consta de un único lote

A efectos de lo previsto en el artículo 62 de la LCSP, la **Responsable del Contrato** es la responsable del servicio de cultura.

CPV: 34991000-0 Alumbrado exterior

Número de expediente: 2026KOHS0005

2.- PLAZO DE ENTREGA Y DURACIÓN DEL CONTRATO

La duración del presente contrato será de **dos (2)** años a contar desde el día hábil siguiente a la firma del mismo.

3.- PRECIO DEL CONTRATO

El precio del contrato (para dos años) es de 42.148,76 euros (sin IVA).

El precio comprende, todos los gastos necesarios para el suministro y, en su caso, para la instalación. Únicamente a título de ejemplo: transporte, embalaje, gastos de montaje, todos los costes correspondientes a la homologación técnica y a todas las demás tareas que afecten al proceso de instalación, así como todos los gastos derivados de los trámites de documentación, homologación, legalización y autorización, incluyéndose en el precio los impuestos y costes relacionados con la obtención de autorizaciones y todos los impuestos de cualquier orden fiscal. Es decir, todos aquellos gastos no asumidos expresamente por el ayuntamiento en este pliego.

Las licitadoras podrán **mejorar el precio**. En ningún caso se podrá ofrecer un precio más alto. Si el adjudicatario estuviese exento del pago del IVA, deberá justificarlo debidamente y esta cantidad no se incluirá en la oferta. Se abonará el precio ofertado por la adjudicataria.

ESKU351872e0-31d1-4fc5-a010-77f5a2848de0

Bergarako Udala

4.- VALOR ESTIMADO DEL CONTRATO y PRESUPUESTO BASE DE LICITACIÓN

El **valor estimado de contrato** es el siguiente**: 50.578,51 euros** (sin IVA).

- 1.periodo navideño: 21.074,38 euros.
- 2.periodo navideño: 21.074,38 euros.
- Modificación del contrato (20%): 8.429,75 euros.
- Total: 50.578,51 euros.

El **presupuesto base de licitación** es el siguiente: **51.000 euro (IVA incluido)**

Tipo de licitación: 42.148,76 €

IVA (%21): 8.851,24 €

TOTAL: 51.000 €

El precio del suministro que constituye el objeto del contrato está constituido exclusivamente por su coste directo. En consecuencia, no procede la distribución presupuestaria prevista en el artículo 100.2 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público.

5.- FINANCIACIÓN

El órgano competente en materia de presupuestos constata la existencia de fondos suficientes, imputables a la siguiente **partida presupuestaria**: 1 3310.226.334.20.06 2026

El órgano competente en materia de presupuestos se compromete a reservar los créditos suficientes para financiar el contrato en los presupuestos de los ejercicios económicos siguientes a los que puedan resultar afectados por el presente contrato.

6.- FORMA DE PAGO

Se abonará la mitad del precio total en cada período navideño. El pago de este precio anual se realizará en dos ocasiones:

- Una vez finalizados los trabajos de suministro e instalación, y una vez firmado el acta de recepción del suministro por la persona responsable del contrato, la empresa adjudicataria deberá presentar la correspondiente factura electrónica por el 50% del precio anual.

